

**2015EKO URRIAREN 29AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO  
OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeita bederatzia.

**HILABETEA:** Urria.

**URTEA:** Bi mila eta hamabosta.

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko seiak eta erdi.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** Aitor Aldasoro Iturbe.

**BILDUAK:** Leire Artola Ugalde

Malu Valles Fernandez

Koldo Agirre Mujika

Miren Amaia Barandiaran Velez de Mendizabal

Santiago Urdampilleta Dos Santos

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2015eko irailaren 24ko aktaren onespena.

2015eko irailaren 24ko aktaren berri eman ondoren, Malu Vallés andreak esan du aktan zehaztu egin beharko litzatekeela eta esan lehengo legealdian ez zela baldintza plegurik aurkeztu, baizik eta baldintza pleguaren zirriborroa eman zela ezagutzera.

**2.- ERRETIRATUEN ETXEKO OBREN LIKIDAZIOA.** Onartzeko proposamena.

Hirigintza Batzordeak egindako proposamenaren arabera, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“**Lehenik.** 127.263,24 €koa (BEZ barne) den obraren azken ziurtagiria onartzea. Horrek suposatzen du esleitutakoarekiko (115.192,65, BEZ barne) %10,48ko igoera. Bide batez, 90.504,52 € kontratistari ordaintzeko agindua ematea, faktura aurkeztu eta gero.

**Bigarren.** Kontratistari **1.313,16 €ko penalizazioa** ezartzea obrak exekutatzera izan duen atzerapenagatik. Hori guztia 2015-10-22an Zuzendaritza Fakultatiboak emandako txostenaren arabera (obra 2015.08-25ean amaitu behar zen eta 2015-10-21ean amaitu da. Guztira, 57 egun) eta baldintza pleguak dioena kontutan izanik, hau da, kontratuaren prezioarekiko

1000 €gatik 0,20ko penalizazioa egun bakoitzeko (0,2 x 115,19€= 23,03 €/eguneko).

**Hirugarren.** Penalizazioa, azken ziurtagirian dedukzioa eginez burutuko da. Dena dela, kontratistari bost laneguneko epea ematen zaio, bere defentsarako bidezkoa dena adierazi ahal izateko. Alegazioak aurkezten ez badira, erabakia behin betikoa izatera pasatuko da.

**Laugarren.** Alkatea jaunari baimena ematea, erabaki hau gauzatzeko behar diren ebazpenak emateko.”

Aipatutako desbideraketaren arrazoiak, 2015eko urriaren 27ko txosten teknikoan aipatzen dira, hau da:

1. *El desvío se ha producido en las actividades de “baños” y red de saneamiento. Como se indicó en una reunión anterior en la Comisión de Urbanismo, la detección de una fuga en la red de abastecimiento y saneamiento de un aseo obligó a su reparación así como a la remodelación de un baño completo. Esta obra estaba prevista hacerla posteriormente pero la D.F. se vió obligada a acometerla ahora para eliminar las fugas que estaban ocasionando los daños en la cimentación del edificio.*
2. *A modo de resumen y tomando como base la certificación que se adjunta, analizo someramente los datos siguientes:*
3.
  - a. **CATAS E IDENTIFICACIÓN DE SERVICIOS.**
    - i. *En general, se ha ejecutado menos medición que la prevista en un principio en el proyecto.*
    - ii. *Los importes pormenorizados son los indicados en el documento.*
  - b. **DEMOLICIONES Y EXCAVACIÓN:**
    - i. *En general, se ha ejecutado menos medición que la prevista en un principio en el proyecto.*
    - ii. *Los importes pormenorizados son los indicados en el documento.*
  - c. **CONSTRUCCIÓN DE VIGA MICROPILOTADA Y ANCLADA:**
    - i. *En este apartado, se ha producido un aumento de medición con respecto al proyecto de 2.139,94 €, siendo la partida de Hormigón HA30 en viga micro pilotada la que ha demandado más recursos., al sustituirse el forjado colaborante por hormigón. Los importes pormenorizados son los indicados en el documento.*
  - d. **DRENAJE Y RESTITUCIÓN DE SERVICIOS:**
    - i. *En general, se ha ejecutado menos medición que la prevista en un principio en el proyecto.*
    - ii. *Los importes pormenorizados son los indicados en el documento.*
  - e. **RAMPA DE ACCESO PARA PERSONAS DISCAPACITADAS:**

i. En general, se ha ejecutado menos medición que la prevista en un principio en el proyecto.

ii. Los importes pormenorizados son los indicados en el documento.

**f. NUEVAS PARTIDAS:**

i. Con la ampliación de la acera de los números impares, un tramo de 42 m hubo que modificarla, enterrándola con el fin de que librarán los bordillos previstos. Además ha habido que actuar sobre las arquetas de esta infraestructura.

ii. Los importes pormenorizados son los indicados en el documento.”

### **3.- RESOLUCIÓN DE CONTRATOS ADMINISTRATIVOS:**

a.- J. M. Iturriotz igogailua, pasagunea eta urbanizazio osagarria eraikitzeke obrak.

Ezagutzera eman da hirigintza batzordeko proposamena, hau da:

**“Gaia: kontratu administratiboa bertan behera uztea.**

2015eko apirilaren 28ko datarekin, CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS, S.A. enpresarekin kontratu administratiboa sinatu zen, J.M. Iturriotz-Joan XXIIIko igogailua, pasagunea eta urbanizazio osagarria eraikitzeke proiekturako (urbanizazio proiektuaren separata) obrak burutzeko.

2015-07-23ko udal aparejadorearen txostenaren arabera, obrak ezin dira proiektatutako moduan exekutatu.

Horren ondorioz, ondorengo proposamena egiten zaio Gobernu Batzorderi:

**Lehenik.** CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS, S.A.ri jakinaraztea, J.M. Iturriotz-Joan XXIIIko igogailua, pasagunea eta urbanizazio osagarria eraikitzeke proiekturako (urbanizazio proiektuaren separata) obrak burutzeko, sinatutako kontratu administratiboa bertan behera uzteko prozedurari hasiera ematea, proposamenaren aurrekarietan azaldutako udal aparejadoreak emandako txostenaren arabera, obra proiektatutako eta esleitutako moduan ezin delako exekutatu.

**Bigarren.** Kontratatistak aurkeztutako, 12.682,25 €ko behin betiko fidantza bueltatzeko erabakia hartzea.

**Hirugarren.** Erabaki honen berri CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS, S.A.ri ematea, adieraziz hamar eguneko epean idatzi hau jasotzen duen hurrengo egunetik kontatzen hasita, bidezkoak diren alegazioak aurkeztu

daitezkeela. Alegazioak aurkezten ez badira, erabakia behin betikoa izatera pasatuko da.

**Laugarren.** Alkatea jaunari baimena ematea, erabaki hau gauzatzeko behar diren ebazpenak emateko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzri hauek azaldu dituzte:

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Gure jarrera abstentzioarena izango da, ez dakigulako horren orde egin behar dena non kokatuko den, zein preziotan, etab.

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) ere esan du, abstenitu egingo dela.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 3 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 3 (Beasaingo EH-BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Horren ondorioz, gehiengo soilarekin onartu da.

**b.- Oriako Pasealekuko igogailuaren obrak:**

Ezagutzera eman da hirigintza batzordeko proposamena, hau da:

**“Gaia: kontratu administratiboa bertan behera uztea.**

2015eko ekainaren 4ko datarekin, “JOSE MARIA SUQUIA, SOCIEDAD LIMITADA UNIPERSONAL.”, enpresarekin kontratu administratiboa sinatu zen, Oriako Pasealekuan igogailua instalatzeko obrak burutzeko.

2015-07-23ko udal aparejadorearen txostenaren arabera, obrak ezin dira proiektatutako moduan exekutatu.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak, eskuduntza duen organoari, hau da, Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egin dio:

**Lehenik.** “JOSE MARIA SUQUIA, SOCIEDAD LIMITADA UNIPERSONAL.ri jakinaraztea, Oriako Pasealekuan igogailua instalatzeko obrak burutzeko, sinatutako kontratu administratiboa bertan behera uzteko prozedurari hasiera ematea, proposamenaren aurrekarietan azaldutako udal

aparejadoreak emandako txostenaren arabera, obra proiektatutako eta esleitutako moduan ezin delako exekutatu.

**Bigarren.** Kontratatutako, 3.903,93 €ko behin betiko fidantza bueltatzeko erabakia hartzea.

**Hirugarren.** Erabaki honen berri “JOSE MARIA SUQUIA, SOCIEDAD LIMITADA UNIPERSONALri ematea, adieraziz hamar eguneko epean idatzi hau jasotzen duen hurrengo egunetik kontaktzen hasita, bidezkoak diren alegazioak aurkeztu daitezkeela. Alegazioak aurkezten ez badira, erabakia behin betikoa izatera pasatuko da.

**Laugarren.** Alkatea jaunari baimena ematea, erabaki hau gauzatzeko behar diren ebazpenak emateko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzia hauek azaldu dituzte:

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Gure jarrera aurkakoa izango da, gure ustez dagoen bezala egin daitekeelako.

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) ere esan du, aurka bozkatuko duela ez delako oso garbi justifikatzen egin ezina.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): proposamena egiteko txosten teknikoetan oinarritu gara.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 3 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 3 (Beasaingo EH-BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 0

Bozketa berriro ere errepikatu da eta emaitza berdina izan denez, Alkateak bere kalitate botoarekin erabaki du. Beraz, hirigintza batzordeko proposamena onartu egin da.

**4.- BERDINTASUN ETA PARTE-HARTZE ALORRETAN GARATU BEHARREKO JARDUEREN AHOLKULARITZA ETA ELKARLAN ZERBITZUA KONTRATATZEA.** Pleguarekiko aurkeztutako errekursoaren ebazpena.

Ezagutzera eman da, parte hartzea, berdintasuna, migrazioa eta hezkuntza batzordearen proposamena, hau da:

**“Gaia: berdintasun eta parte-hartze alorretan garatu beharreko jardueren aholkularitza eta elkarlan zerbitzua kontratatzeari buruzko pleguari egindako errekursoaren ebazpena.**

## **AURREKARIAK**

**I.-** 2015-09-24an, Gobernu Batzordeak onartu zuen deialdi publikoa egitea, berdintasun eta parte-hartze alorretan garatu beharreko jardueren aholkularitza eta elkarlan zerbitzua kontratatzeko, horretarako baldintza plegua onartuz.

**II.-** Deialdia, 2015-09-30eko GAOean argitaratu zen eta proposamenak aurkezteko epean 2015-10-15ean amaitu zen.

**III.-** 2015-10-09an, Maribi Lopez Perez andreak, BIDERTU GIZARTE KUDEAKETAREN ordezkari, baldintza pleguarekiko errekurtoa aurkeztu zuen, adieraziz diskriminazioa sortzen dela kontratua exekutatu behar duenari, psikologia o psikopedagogian graduatua edo lizentziatua izatea eskatzen zaiolako. Beste diziplina batzuetan titulazioa izatea onartu beharko litzatekeela dio, beti ere, berdintasunean Masterra izanez. Berea alegazioa arrazoitzeko, 2008an EUDEL, EMAKUNDE, HAEE eta EUSKO JAURLARITZAREN artean egindako “emakume eta gizonen berdintasunerako pertsonal teknikoa kontratatzeko oinarri orientatzaile-ereduan” oinarritzen da.

## **OINARRI JURDIKOAK**

Kasu honetan, deialdia egin da administratibo izaera duen kontratua formalizatzeko eta ez, kontratu laborala edota funtzionario izendapena. Izan ere, azken hauetarako dagokion hautaketa prozesua izapidetu beharko litzateke onartutako oinarrien arabera eta hauek aipatutako eredia jarraituz edo beste baldintza batzuk ezarri onartu daitezke, zeren eta errekurritzen duenak dioen bezala “eredu” hori orientatzailea da eta ez loteslea.

Orain errekurritzen den pleguan baldintzak jartzerakoan, Beasaingo udalerraren idiosinkrasia kontutan izanda, interes orokorra bermatu ahal izateko. Horretarako, diskrezionalak eta ez arbitrarioak diren iritzia onartu dira.

Gure ustetan kontratu exekutatu behar duenak, pleguan eskatzen den titulazioa izatea beharrezkoa da, arrazoi hauengatik:

Beasaingo udalerriko bi ikastetxek, Eusko Jaurlaritzako “Hezkidetzaren Planaren” sartuta daude eta hirugarrenengo bat sartzeko asmotan.

“Hezkidetza Plan” horrek Udalean berdintasun zerbitzua ematen duenarekin koordinatzea eskatzen du. Elkarlan hau burutzeko kontutan izan behar da Hezkuntza Komunitatearekin (ikasleria, irakasleria eta gurasoak), zuzen zuzeneko ekintzak egiten direla eta horretarako beharrezkoa iruditzen zaigu psikologiako edo psikopedagogian formazioa izatea.

Udaleko Berdintasun sailetik antolatzen diren ekitaldi edo parte hartze prozesuetan, ugaritzen ari dira biolentzia matxista jasan duten edo jasaten ari diren emakumeen presentzia. Emakume hauek behar duten arreta, horrek taldean eragiten duena kontuan izanda eta guztien jabekuntzaren eta aurrera pausoen aldeko apustua egiteko, bertan lan egingo duen profesionalak formazioa berezia behar duela uzte dugu.

Errekurrizen duenak profil hori diskriminatzailea dela dio, baina gure ustetan dauden beharretarako gehiena doitzen den diziplina da.

Diskrimazio hitza erabili da lizenziatura edota diplomatura izatea baliozkoa dela argudiatuz. Posible da, beste lizenziatura edota diplomatura bat duen norbait ere balizkoa izatea, noski. Baina denok dakigun bezala, nonbaiten jarri behar da muga. Zergatik ez, goi edota erdi mailako zikloa duen norbait? Zergatik ez aurretik aipatutako dokumentua eredutzat hartuz, zuk eskatu bezala, “cursos de formación en materia de igualdad de mujeres y hombres” formakuntza alorrean 150 ordu izatea ez al da nahikoa? Zergatik eskatu behar da masterra izatea?

Azken hau ere, norbaitek zalantzan jarri dezake eta zilegi da. Masterrak ziurtatzen al digu zerbitzuari ondo erantzungo zaiola?. Gure ustez garantia bat da, psikologian edo psikopedagogian lizenziatura edo gradua edukitzea bezala.

Horren ondorioz, parte hartzea, berdintasuna, migrazioa eta hezkuntza batzordeak, Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

**Lehenik.** Aurkeztutako errekurtsioa ez onartze aipatutako arrazoiengatik.

**Bigarren.** Konkurrentzia bermatze arren, proposamenak aurkezteko epea, zazpi egunetan luzatzea, GAOean iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte:

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Gure jarrera aurkakoa izango da, gure ustetan zerbitzu hori emateko plantilan berdintasun plaza sortu beharko litzatekeelako.

Malu Vallés andreak (EAJ-PNV) esan du Beasainek hezkidetzaz sustatzen duela eta bere ustetan eskatzen den titulazioa izatea garrantzitsua dela.

Miren Amaia Barandiaran (Beasaingo EH-BILDU): "Nire ustetan titulazio gehiago daude kontratatu nahi den zerbitzua emateko balio izango luketenak. Egun gradu gehiago daude eta baita ere zerbitzu hori burutzeko aberastuko luketen beste ikasketa batzuk."

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 2 (Beasaingo EH-BILDU)

Abstentzioak: 0

**5.- DOLAREA HOTELA, S.Lren ESKAERA.** Igartzako Multzoz Monumentala ustiatzeko aurkeztutako fidantzarekiko

Kultura batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

"AURREKARIAK

I.- 2015eko martxoaren 18an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen, DOLAREA HOTELA, S.L.ri bere garaian Igartzako Multzoz Monumentala ustiatzeko aurkeztu zuen fidantza ez bueltatzea eta 5.656,57 € ordaintzeko errekerimendua egitea, balio hori duten eta aipatutako helbururako bere esku jarritako ondasunak ez bueltatzeagatik.

II.- 2015-04-16an erabakia jakinarazten zaio eta 2015-05-15ean, DOLAREA HOTELA, S.L.ek birjarpen helegitea aurkeztu zuen. Errekurtso horri buruz, 2015-06-08an eta 2015-06-09an hurrenez hurren, Kultura eta Euskera Koordinatzaileak eta Idazkariak ondorengo txostenak eman zituzten:

**KULTURAKO TEKNIKARIAREN TXOSTENA**

**"Indefensión de Dolarea"**

*Igartzako kudeaketa aurrera eramateko materiala behin eta berriro eta iturri ezberdinak erabiliz eskatu da, eta Dolarea Hotelak denbora luzea behar izan du Udalak jarritako materiala Igartzara itzultzeko; eta, hala ere, ez ditu itzuli bere garaian jaso zituen guztiak. Hauek horrela, ez da ulertzen Dolarea Hotelaren babes faltaren argudioa.*



### **"A la firma del contrato inventario ninguno"**

*Egia da, kontratuarekin batera ez zela inolako inbentariarik sinatu edo jaso. Izan ere, kontratua sinatu zen unean, 2011ko martxoaren 3an, oraindik ez zeuden guztiz osatuta ustiaketa aurrera eramateko beharrezko ikusten ziren ondasunak; fakturen datak ikusi besterik ez dago, data guztiak kontratua sinatu ondorengoak dira.*

### **"¿Cómo se garantiza mi mandante que los valores otorgados son los correctos?"**

*Fakturak daude horretarako. Udalak Igartzako Monumentu Multzoko kudeaketa eta ustiaketa aurrera eramateko beharrezko ziren elementuak erosi zituen. Eta elementu guzti horien fakturak erabili dira orain oinarritzat eskaera eta kalkulu guztiak egiteko.*

### **"¿Dónde está ese margen a la hora de hacer la liquidación?"**

*Dolarea Hotelak itzuli dituen material guztiak ez ditu itzuli bere horretan edo egoera onean. Batzuk matxuratuta edo apurtuta itzuli ditu; beste batzuk zikinduta. Horrelakoak ez dira kontuan hartu erreklamazioa egiterakoan; apurtutakoak osorik baleude bezala kontatu dira eta zikinduta edo egoera eskasean zeudenak egoki baleude bezala kontatu dira. Gure ustez nahikoa eskuzabal jokatu du Udalak horretan.*

### **"Organización de los eventos y el transporte del material"**

*Dolarea Hotelarekin Udalak egin zuen kontratuaren barruko egin beharrekoetan katering zerbitzuak ere, bazeuden eta denok ezagutu ditugu Dolarea Hotelak antolatu dituen ekimen jendetsu eta ugari horiek, ia bere osotasunean ezkontzei eta dastaketei loturik egon direnak*

### **"No se puede exigir ahora a Dolarea Hotela la devolución íntegra de los elementos entregados".**

*Orain eskatzen zaiona ez da guztiaren itzulketa, falta direnenena baizik. 2014ko maiatzaren 27an, itzuli beharrekoen zerrenda bidali zitzaion Dolareari. Zerrenda horretako gauza batzuk itzuli zituen, kostata baina inolako aitzakiarik gabe. Orain eskatzen zaio, zerrenda horretatik itzuli ez zituenak itzultzeko.*

### **"Comporta un deber por parte de la Administración / Ayuntamiento de soportar el deterioro del bien".**

*Dolarea Hotelak Igartzan bere funtzioak betetzen aritu den denboran, ez dio Udalari jakinarazi materialak berritzeko edo konpontzeko beharrik.*

***"salvo prueba fehaciente y consolidada de que esos elementos han sido indebidamente utilizados y fuera del ámbito para los que fueron adquiridos".***

*Udalak inoiz ez du aipatu edo adierazi Dolareak erabilera okerra eman dionik materialari; bakar bakarrik itzuli ez duen materiala Igartzara bueltatzeko eskatu zaio.*

***"A lo largo de la última prórroga del contrato, el propio Ayuntamiento ha organizado eventos".***

*Bai, Igartzako aktibitatea ez da gelditu eta harik eta kudeatzaile berria lanean hasi arte, Udalak hartu zituen beregain Igartzako kudeaketa eta ustiaketa. Dena dela, Udalak erabili duen materiala, ez da Igartzarako erosi zena, Igartzan falta zelako. Kasu batzuetan ekimena antolatu duten elkarteek edo taldeek ekarritako materiala izan da eta beste askotan Dolarea Hotelari eskatu zaio catering zerbitzua emateko.*

*Bestalde, Udalak antolatu dituen ekimenen eta Dolareak antolatzen zituenen artean alde nabarmena dago. Ekimen horien filosofia eta helburuak guztiz ezberdinak izan dira eta Udalak ez du behar izan beti material berezirik edo catering-ak ematekorik.*

***"(sin la supervisión de Dolarea Hotela)".***

*Baina zer dauka Dolarea Hotelak Igartzan ikuskatzeko? Kontratuaren arabera, Igartza kudeatzea eta ustiatzea ziren Dolarea Hotelaren egitekoak kontratuak irauten zuen bitartean, beraz, ez dagokio edo ez da bere egitekoa Igartzan ezer ikuskatzea.*

***"¿Quién garantiza a mi representada que parte de lo ahora reclamado no ha desaparecido durante esos usos por el Ayuntamiento de Beasain o en el más del año transcurrido desde la terminación del contrato?"***

*Normalean, gauzak ez dira desagertzen. Beraz, hitz hori ez da oso egokia testuinguru honetan. Zuzenagoa litzateke esatea, hondatu, puskatu, galdu,...*  
*Bestetik, lehen esan bezala, Udalak denbora horretan antolatu dituen ekimenetan ez dira behar izan catering-ak emateko trasteak. Igartzako erabileraren norabidea aldatu egin du Udalak azkenaldian, Igartzaren kontzeptu berri baterako bidea egiten ari da eta catering-ak ematea ez da helburuetako bat. Aitzitik, ahal den neurrian, ekidin egin dira. Eta eman behar izan direnetan, askotan, antolatzaileek beraiek ekarriak izan dira beharrezko trasteak. Beraz,*

egian esan, Dolarea Hotelak aipatzen duen urte horretan ez da era honetako materialik hondatu lgartzan.

Gainera, kontuan hartu behar da, Udalaren ardurapean egon izan den denboran catering-etarako materiala falta zela; Dolareari eskatu behar izan zitzaiola; eta Dolareak ez zituela berehalakoan itzuli horietako batzuk.

Beste zentzu batean, zerrenda pasatu zitzaionean, Dolareak ez zituen orain adierazten dituen kontuak adierazi. Aitzitik, zerrendako elementu batzuk itzuli zituen. Orain esaten dituen hainbat kontu, orduan ere esan zitzazkeen eta ez zion ezer adierazi Udalari.

### **"Ha sido Dolarea Hotela la que ha prestado ese menaje".**

Udalak inoiz ez du erabili ezer Udalarena ez denik. Udalak antolatutako ekimenetan ez da behar izan Dolarearen materialik. Horrek ez du esanahi Dolareari eskatu zaizkion catering zerbitzuetan Dolareako materiala erabili ez denik; baina zerbitzu horiek, fakturen bidez baieztatu daitekeen bezala, ordaindu egin ditu Udalak.

Azken finean, Udalak dituen fakturek erakusten dute Udalak zer material erosi zuen eta zein material den lgartzakoa.

### **IDAZKARITZA TXOSTENA**

Bigarren alegazioak esaten du aipatzen den legea ez dela zuzena, 3/2001 Erret Dekretu Legegilea, indarrean ez zegoelako kontratua sinatu zenean.

Alegazioa aurkezten duenak xehetasun horrekiko arrazoia du. Igartzako Multzo Monumentala kudeatu eta ustiatzeko kontratua, 2011ko martxoaren 3an sinatu zen eta orduan indarrean zegoen Legea, urriaren 30eko 30/2007koa zen. Hau da, hain zuzen ere, kontratua arautzen duen Legea eta kasu honetan aplikatu beharreko artikulua 88a. Gertatzen dena da artikulua hau eta 3/2011ko Erret Dekretu Legegilearen 100. artikulua berdina direla, (bermeei dagozkien erantzukizunak). Beraz, Ebazpena zuzena dela esan daiteke.

Hirugarren alegazioak fidantza bueltatzearen beharra aipatzeaz gain adierazten du Gobernu Batzordeko erabakia jakinarazi arte ez zaiola kontratistari ezer ohartarazi kontratua ez betetzearekiko.

2014-05-28ko data duen idatziaren bitartez, ordea, esan zitzaion bere garaian aurkeztutako fidantza bueltatzeko egindako eskaera ezin zela ontzat eman, egiaztatu zelako Igartzako Multzo Monumentala ustiatzeko jarritako ondasun batzuk falta zirela. Horren ondorioz, espedientearen bere esku jarri zen eta epea eman zitzaion bidezkoak ziren kontsiderazioak aurkezteko.

2015eko urriaren 2an, Kultura eta Euskera Koordinatzaileak berriro ere txostena eman zuen adieraziz errekurtsioa oraindik ebatzi gabe dagoela, legealdiaren aldaketa izan delako eta uztailean nahiz irailean DOLAREA HOTELA, S.L.ek ondasun batzuk bueltatu zituela. Ondasun horien balioa, 2.500,12 €koa eta 507,84 €koa izan da, hurrenez hurren.

Ondorioa:

- 1.- Bueltatu beharreko ondasunen balioa: 15.293,30 €.
- 2.- 2015-03-18ko Gobernu Batzordea egin zena bitarte bueltatutakoak: 6.636,73 €.
- 3.- Data horrekiko zorra: 8.656,57 €.
- 4.- Uztailean eta irailean entregatutako ondasunen balioa: 2.500,12 € + 507,84 €.
- 5.- **Azken zorra: 5.648,61 €.**

Horren ondorioz, 2015-10-29an egindako Gobernu Batzordeak, legeak ezartzen duen quorumarekin ondorengo erabakia hartu zuen:

**Lehenik.** Aurkeztutako birjarpen helegitea ez onartzea aipatutako arrazoiengatik.

**Bigarren.** DOLAREA HOTELA, S.L. udal ogasunaren zorduna dela aitortzea, 5.648,61 €ko kopuruan Igartza Multzto Monumentala ustiatzeko atxiki ziren hainbat ondasun ez bueltatzeagatik.

**Hirugarren.** Bere garaian aurkeztutako 3.000,00 €ko fidantza zorra estaltzeko erabiltzea konpentsazio bidez. Horren ondorioz, 2.648,61 €ko zorretan geratzen da.

**Laugarren.** DOLAREA HOTELA, S.L.ri **2.648,61 €**ko zorra ordaintzeko errekerimendua egitea, ordaintzeko epea eta aurkeztu ditzakeen errekurtsioen aipamena eginez.”

## **6.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.